

ZUBILETA JANTOKIA INFORMAZIO ORRIA (2025-26 IKASTURTEA).

1.- EGUNEKO MENUEN KUOTAK

Eusko Jaurlaritzak esandakoari jarraituz, **ikasturte hasierako kuotak (egun bati dagokiona) pasa den ikasturteko berberak izango direla uste dugu**. Geroago posiblea da aldatuta izatea. Horrela izatekotan aditzera emango dizuegu.

- Ohiko jankide : **4,60€/egun**.
- Ohiko jankide garraiatua (subentzionatuak): **3,30€/egun**.
- **Noizbehinkako jankideak**: Bazkari zerbitzua **egun bakoitzak 5,20€**.

OHIKO JANKIDEAK izateko, **ASTERO EGUN FINKO BAT**, gutxienez, erabili behar da jantoki-zerbitzua, arautegiaren arabera.

Urriaren 9 arte aukera dago **ohiko jankidearen kuota izateko**. Data hau pasa eta gero, jantokiko zerbitzua erabili nahi bada **NOIZBEHINKAKO jankidearen kuota ezarriko da**, nahiz eta egun guztietan jantoki zerbitzua erabili.

2.- JANTOKIAREN ORDAINKETA

Ikasturte honetan, **ERREZIBOAK URRIAN HASIKO GARA PASATZEN** eta **EKAINEAN amaituko dira**. Beraz, **9 ERREZIBO** pasatuko dizkizuegu. Hau da, **URRITIK EKAINERA**.

Hilabetearen hasieran pasatuko dizuegu (5ean edo). Egon adi mesedez erreziiboak bueltan etorri ez daitezen.

Honako datu hauen arabera zehaztuko da urtean zehar ordaindu beharrekoa:

HAUR HEZKUNTZAKO 2 URTEKOAK (BERANDUAGO HASTEN DIRA).

Ikasturte honetan **161 egunetan** izango da jantoki-zerbitzua. Kuotak honela geldituko dira:

- **2 URTEKO OHIKO JANKIDEAK**

$161 \times 4,60 = 740,06\text{€}$ ikasturte osoa.

Kopuru hau 9 hilabeteetan banatuko da. $740,06\text{€} : 9 = 82,20\text{€/ hilero}$

- **2 URTEKO OHIKO JANKIDEAK GARRAIATUAK**

$161 \times 3,30\text{€/ egun} = 531,30\text{€}$ ikasturte osoa.

Kopuru hau 9 hilabeteetan banatuko da.

$531,30 : 9 = 59\text{€/ hilero}$

- **2 URTEKO NOIZBEHINKAKO JANKIDEAK**

Egun bakoitzean **5,20€**

HAUR HEZKUNTZAKO 3. 4. 5 URTE ETA LEHEN HEZKUNTZA

Ikasturte honetan **176** egunetan izango da jantoki-zerbitzua. Kuotak honela geldituko dira:

- **OHIKO JANKIDE SUBENTZIORIK GABE:**

176egun x 4,60€/egun = 809,60€ ikasturte osoa.

Kopuru hau 9 hilabeteetan banatuko da.

809,60 : 9 = **89,96 €** / hilero

- **OHIKO JANKIDE GARRAIATUAK:**

176egun x 3,30€/ egun = 580,80 € ikasturte osoa.

Kopuru hau 9 hilabeteetan banatuko da.

580,80: 9 = **64,53€/** hilero

- **NOIZBEHINKAKO ERABILTZAILEAK**

Egun bakoitzean **5,20€**

3.- JANTOKIKO ALTAK ETA BAJAK:

Altak eta bajak ahal izanez gero emailaz komunikatuko dira. Honetarako ikaslearen izen abizenak eta taldea zein den jartzea eskatzen dizuegu. Zein egun edo egunetan ez den etorriko eta luzerako bada zein egunean bueltatuko den gaizki ulertuak ekiditzeko.

MENU BASAL

Jantokia **ERABILTZEKO 24 ordu** lehenago eman beharko da honen berri (noizbehinkakoak izatekotan edo epe luze baterako bada).

Jantokia **EZ ERABILTZEKOTAN, 24 ordu** lehenago eman beharko da honen berri (aurreko eguneko goizeko 10:00ak baino lehenago). EGUNAREN ERRESERBA KENDU AHAL IZATEKO.

Dirua berreskuratu ahal izateko ez-etortzeak (gaixotasunengatik, oporraldiengatik...) astebetez edo aste gehiagoz jarraian izan beharko du eta itzuli beharreko zenbatekoa kuotaren % 50a izango da. Greba egunak ere itzultzen dira. Itzulketak ekaineko errezihoan gauzatuko dira, hau da, 9.kuotan, azken hau baxuagoa izanik.

MENU BEREZIAK (ALERGIAK, INTOLERANTZIAK):

Menu bereziak behar izatekotan, **3 EGUN LEHENAGO** eskatu behar dira bestela ezin da ziurtatu dieta berezia egun horretarako helduko denik. Medikuen txostena +protokoloa eta jatunaren fitxa beteta ekarri beharko dituzue hau eskatu ahal izateko.(eskatu idazkaritzan).

BAJA ematearen kasuan, **2 EGUN LEHENAGO** abisatu behar da, daukagun aplikaziotik erreserba kendu ahal izateko. Ez bada epe hau betetzen, janaria ikastetxera bidaliko dutenez, dirua ezin izango dugu itzuli.

Ez da zerbitzatuko honelako dieta berezirik ez badauzkagu aldeztu aurretik dagokien TXOSTEN MEDIKUA eta jarraitu behar den PROTOKOLOA.

DIETA LEHORGARRI (“astringente” delakoa) behar izatekotan, **egun berean 10:00ak baino lehenago** posiblea da eskatzea. **Telefonoz hobeto: 944307426.**

Jangelako arduraduna Ainhoa Ortega da.

Eskaera edo kontsultak email honetara: jantokikoarduraduna@zubiletaeskola.eus

Zuzendaria

Jantokiko Arduraduna.